


Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Oteizaren itzala

1 996ko maiatzaren 4an omenaldia eskaini zion Eusko Ikaskuntzak Oteizari Oñati-ko Unibertsitatean, eta Manuel Lekuona saria eman zion. Laudoriozko hitzaldien artean, Bitoriano Gandiagari eskatu zioten berea egiteko. "Maisuaren itzala" ipini zion titulu bere hitzaldiari. Bere olerkiak irakurri zituen tartean; lehendik argitaratuak, bat edo beste; hemengo hau, omenaldirako paratua, hitzaldiaren azkenean irakurri zuen.

Honetara idatzi zion Gandiagak Oteizari berari, bere azken gutunean, hiltzorian zegoela:

PENTSAMENDUAREN

eta egitearen
abangoardian
Oteitza,
bere garaiko
eskultore
konprometitu
eta balio unibertsalekoa.

Zentzu erlijioso
handi baten jabe
Oteitza,
landu dituen
harri blokeen tamainako
hitzak dituena.

Arantzazuko
basilikaren frisoko
harrizko poemaren autore
Oteitza.

"Tú has sido un instrumento providencial de Arantzazu. Tú has influido en el resto de los artistas que han obrado en este lugar, sobre todo en Saenz de Oiza quien jamás escondió tu magisterio y dirección"

Gandiagarekin batera, gogoz egiten dio artista handiari bere aitortpena Arantzazu aldikari honek, hark bere Arantzazuko obra burutu zueneko 50. urteurrena gogoratu eta ospatua dugun honetan. Bego laudorio eta omenalditxo hau, azken hilabeteotan eskaini dizkioten besteekin batera.